

# KBIZ

beaz magazine

0. Zk



## Quest

Hortzetako  
inplantologia  
sinpleagoa, seguruagoa  
eta eraginkorragoa

## emen 4 sport

Kirolaren eta osasunaren  
mundua eraldatzen duen  
metodologia



## Saluta

Mundua zaintzen dugu,  
osasun mentala eramanez



# EDITORIALA

**K** **BIZ** aldizkariaren 0 zenbaki honetan, **BEAZ**en gai hau hartu nahi dugun hizpide: berrikuntza, osasuna eta ongizatea: ekintzailletza istorio inspiratzaileak, Bide hori egiteko inkubazio-prozesua hasi berri duen enpresa bat ezagutuko dugu, **Saluta**, gaur egun gure zentroetako batean egoitza duen beste bat, **Quest Implants**, eta, azkenik, **Emen4Sport**, prozesu hori amaitu duena eta dagoeneko bere espazioa duena.

Ekintzailletzaren bidaia horretan, errentagarriak izateaz gain, gizartean eragin positiboa izan nahi duten proiektuak ezagutuko ditugu. Kirol-errendimenduaren demokratizaziotik hasi eta osasun mentalera eta hortz-inplantologiara bideratutako irtenbide berritzaileetaraino. **Emen4Sport**, **Saluta** eta **Quest Implants** startupak gure gizarteko funtsezko sektoreak eraldatzen ari dira. Hemen haien ibilbideak, helburuak eta erronkak aztertuko ditugu, haien talde sortzaile bakoitzari elkarrizketa egin ondoren. Ikuspegi bera partekatzen dute hirurek: berrikuntza erabiltzea pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko. Haien ibilbideetan aliantza estrategikoen garrantzia, datuen erabilera aurreratua eta pertsonen benetako beharretan oinarritutako ikuspegia nabarmentzen dira.

Startup horiek gogorarazten digute ekitea, ez dela negozioak sortzea soilik, gure gizarteko funtsezko sektoreak eraldatzeko adibide inspiratzaile bat ematen baitigute.



Informazio gehiago  
nahi izanez gero,  
mesedez ikusi

[beaz.bizkaia.eus](http://beaz.bizkaia.eus)

Aurkituko gaituzu:



Sabino Arana, 8  
48013 Bilbao  
Tel.: 944 395 622

[beaz@bizkaia.eus](mailto:beaz@bizkaia.eus)

# KBIZ

## AURKIBIDE

04

### Agurra

Ainara Basurko Urkiri  
*Ekonomia Sustatzeko Saileko Foru Diputatua*

06

### Emen 4 sport

Kirolean ongizatea eta bikaintasuna sustatzera bideratutako ametsa eta ikuspegia gauzatzea da, guztiontzat eskuragarri dagoena.

12

### Quest

Enpresako bazkide fundatzaile eta zuzendari zientifiko baten hortz-ezarpeneko esperientzia klinikotik sortutako proiektua da.

16

### Saluta Bizkaia

App honek teleorientazio psikologikoa, psikohezkuntza eta eguneroko bizitzako erronkei aurre egiteko tresnak eskaintzen ditu.

**Erredakzioa**  
Jorge de la Herrán


**Argitaratzailea**  
Beaz

**Copyrighta**  
© KBIZ, 2025.  
**Eskubide guztiak**  
erreserbatuta.

**Argazkia**  
Mikeldi Donibane

**Inprimaketa**  
Gráficas Uncilla

# Ongi etorri **KBIZ**-era!




Bizkaian beste aurrerapauso bat eman nahi izan dugu ekintzaileen talentuarekiko daukagun konpromisoan; horregatik, KBIZ argitaratu dugu: gure inkubagailuetan lan eginez gure lurraldearen etorkizuna eraikitzen ari direnen ahalegina, sormena eta berrikuntza ikusarazteko argitalpena.

Bizkaian uste dugu ekintzailetzak gizartea eta ekonomia eraldatzeko motorra izan behar duela. Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundia eta Beaz lanean ari gara ekintzaileek ekosistema oparoa, sendoa eta dinamikoa izan dezaten. BIC Bizkaiak eta BIC Bizkaia Ezkerraldeak —Eusko Jaurlaritzarekin, UPV/EHUko Zitekekin, Deustuko Unibertsitateko Deustokabirekin eta Nagusi Intelligence Center-eko ekintzailetza arloarekin batera— osatutako inkubagailu-sare indartsuari esker, startupeki tresnak, baliabideak eta konexioak ematen dizkiegu, hazi eta finkatu daitezten. Inkubagailu horiek, espazio fisikoak izateaz gain, lankidetzak-komunitateak ere badira, non ideiak sortzen, esperientziak partekatzen eta aukerak agertzen diren.

Komunitate horietan sortzen den talentua funtsezko aktiboa da Bizkairako. Startup bakoitzak, ideia bakoitzak eta ekintzaile bakoitzak balio berdingabea du. Baina **sareko elkarrekintzak, lankidetzak eta espiritu kolektiboak** biderkatzen dute inpaktua. Hain zuzen ere, horretan datza KBIZen funtsa: istorio horiek ikusaraziko dituen, Bizkaiko talentua gorai patuko duen eta sinergiak eta aliantzak ezagutaraziko dituen plataforma izatea.


**KBIZ munduari irekitako leihoa izatea nahi dugu, berritzen eta arriskatzen dutenentzako bozgorailua, eta pausoa ematear daudenentzako inspirazio-iturria.** Lehen ale honen bidez, ezagutzera ematen dugu gure inkubagailuetako ekintzaileen talentuak daukan egundoko indarra, eta, era berean, Bizkaia berritzaileago, jasangarriago eta konektatuago bat eraikitzeko daukaten eginkizuna aintzatesten dugu.

**AINARA BASURKO**

A portrait of Aina Basurko Urkiri, a woman with short blonde hair, smiling and looking upwards. She is wearing a white and black vertically striped long-sleeved shirt. She is standing outdoors, leaning on a metal railing, with a background of green trees and a bright sky. In the top right corner, there is a black rectangular box containing white text.

**AINARA BASURKO URKIRI**

**EKONOMIA SUSTATZEKO  
SAILEKO FORU DIPUTATUA**



# emen<sup>4</sup> sport

## *Kirol-errendimendua demokratizatzen*

2017az geroztik, **Emen<sup>4</sup>Sport** enpresa kirolaren eta osasunaren ikuspegia eraldatzeko lanean aritu da. Horretarako, ikerketa klinikoa eta teknologia konbinatzen dituen diziplina arteko eredu bat sortu du. **Andoni Igartuak** eta **Óscar Tabuenkak** sortu zuten startupa, eta goi-errendimenduko kirolaren zientzia herritar guztiei helaraztea du helburu.

*“Kalitatezko esku-hartze eredu baterako sarbidea demokratizatu nahi genuen, kirol profesionaletik harago eramateko”, azaldu du Igartuak.*

### **BERRIKUNTZARAKO BIDAIA**

Emen<sup>4</sup>Sporten hasiera ez zen erraza izan, baina Bizkaiko Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, EHUren eta Deustuko Unibertsitatearen laguntzarekin prototipoak garatzea lortu zuten 2019an. Lankidetzaz garrantzitsuek, hala nola Kirol Egokituaren Euskal Federazioarekin eta Euskadi Txirrindularitza Fundazioarekin egindakoek, ereduak baliozkotu zuten, eta beren metodologia berritzailea garatzeko oinarriak ezarri zituzten.

Kirol-errendimenduan eta pertsonen osasunean emaitza bereizgarriak lortzea ahalbidetzen dien eredu propio bat sortzean oinarritzen da enpresaren ikuspegia. Ikerketaren eta datuen tratamenduaren bidez, eraginkorragoak izan nahi dute zentroan ebaluatzen dituzten arloak hobetzean.

Emen<sup>4</sup>Sporten ikuspegi berritzailea datuak aztertzeke plataforma zentralizatuan datza. *“Datuen objektibazioak bereizten gaitu eta ebidentzian oinarritutako erabakiak*



---

*hartzea ahalbidetzen digu”,*  
dio Igartuak.

Proiektuaren bilakaeraren funtsezko alderdi bat izan da Zitek-en instalazioetan jarduera garatzen hasteko gune bat izatea. Zitek Euskal Herriko Unibertsitateak

(EHU) eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako inkubazio-espazioa da. Ingurune egoki horri esker, aurrerapenak eta doikuntzak egin ahal izan dituzte negozio-ereduaren eskaeren arabera. Urte hauetan zehar, egokitu eta hazi ahal izan

dira, beren helburuekin bat datozen zerbitzuak eskainiz.

**BEAZ**en jasotako prestakuntza funtsezkoa izan da proiektua garatzeko. Horrez gain, esparru akademiko bat ere eskaini die, haien ekimenak indartzeko.






## EMEN4SPORT

Iruña Kalea 1 Deusto  
48014 BILBAO (Bizkaia)

Informazio gehiago  
hemen aurki dezakezu:



*“Emen4Sport: kirolaren eta osasunaren mundua eraldatu duen metodologia bakarra eta diziplinartekoa eskaintzen dugu”*

Gainera, prozesuan zehar lortutako aintzatespenek enpresaren ikusgarritasuna areagotu dute, eta bultzada nabarmena eman diete bai ekonomiari begira, bai proiektuaren hazkunderari begira. Aintzatespen horiek motibazioa eman diete,

eta egindako bidearekiko konfiantza berretsi.

Gaur egun, **Emen4Sport** enpresa-garapenaren fase erabakigarrian dago. Bilbon kirol-zentro berria inauguratzeak hirian sartzea ahalbidetzez gain, pertsona eta erakunde gehiago erakartzeko iman

gisa ere jardungo du.

Kokapen estrategiko horri esker askotariko jendartera iristea espero dute, eta, horrela, kirol-komunitate aktibo eta kolaboratiboa sortzea. Epe labur eta ertainean, Emen4Sportek honako helburu hauek ditu:



- Bere eredia nazioarteko kirol-industrian erreferente izatea.
- Plataforma teknologikoaren garapena amaitzea, maila globalean jarduteko.
- Zentroen sarea handitzea, Bilbon espazio berri bat irekitzearekin hasita.

Epe luzera, startupak funtsezko herrietan tarteko zentroak ezarri nahi ditu eta bere zerbitzuak dibertsifikatu, merkatuaren eskaeretara egokitzeko. Hori guztia konpromiso irmo hau ardatz izanda: kirolaren ezagutza eta

kalitatea eskuratzeko aukera demokratizatzea.

Epe ertainean, esan bezala, nazioartean zabaldu nahi dute, eta 10 milioi euroko inbertsio-txanda proiektatu dute.

# SLren ERAKETA BIZKORTUA



**Eskaerak aurkezteko epea:**

Eskaera: Eskera egiteko epe iraunkorra

SLren eraketa bizkortua zerbitzuak erantzukizun mugatuko sozietateen eraketa telematikorako laguntza eskaintzen du Dokumentu Elektroniko Bakarraren (DEB) bidez. Zerbitzu bakarrean zentralizatzen ditu erregistroan inskribatzeko beharrezkoak diren izapide guztiak, aukeratutako notarioarekin dagokion hitzordua koordinatuz.

Zerbitzu hau, Industria eta Enpresa Txiki eta Ertainetako Zuzendaritza Nagusiarekin egindako hitzarmenaren emaitza da, BEAZ Enpresarientzako Zerbitzu Puntu (EZP) izendatzen duena SL enpresen eraketa azkarrean.

## Lagunduko dizugu:



Leiho bakarra Dokumentu Elektroniko Bakarra (DEB) bidez zure enpresa sortzeko.



Tramitazio-prozesu arin eta ekonomikoa, gehienez 72 orduetan burutua, ezarritako legezko baldintza guztiak betetzen badira.

## Norentzat?


Zerbitzu hau negozio bat sortu nahi duten edo dagoeneko baduten eta kudeaketarekin lotutako alderdietan laguntza eskatzen duten pertsoneri zuzenduta dago.

[beaz@bizkaia.eus](mailto:beaz@bizkaia.eus)

Zalantzarik baduzu, deitu  
**944 395 622**

Eskatu orain zure zerbitzua:





# quest *implants*

## *Hortz-inplantologian berritzen*

Bizkaiko Teknologia Parkean dagoen **BIC Bizkaia** inkubagailutik, **Quest Implants** hortz-inplantologiaren aldaketaren buru da, esperientzia kliniko zabalari eta berrikuntzarekiko konpromisoari esker.

*“Gure proiektua Bartzelonan sortu zen, Julián Cuestak (enpresako fundatzaileetako bat eta zuzendari zientifikoa) hortz-inplantologian zuen esperientzia klinikoaren ondorioz. Lanean 30 urte baino gehiago ematearen ondorioz lortutako know how-ari esker, gure asmoa bete dezakegu; hots, ezagutza hori guztia industriari helaraztea, inplantologiaren arloan orain arte behar bezala konpondu ez ditugun erronka klinikoak erantzuteko. Hortik dator gure izena; izan ere, ‘quest’ hitzak, ingelesez, erronka esan nahi du”, azaldu du Deborah Erkorekak, zuzendari nagusi eta fundatzaileetako batek.*

Ezagutza horri esker, **Hylock** eta **FixPeek** bezalako sistema berritzaileak garatu dira. Inplanteen gaineko protesi-sistema duala da, eta protesia torlojuz lotzeko edo klip bidez finkatzeko aukera ematen du, komeni denaren arabera. Erraz kentzeko aukera ere ematen du, hobe garbitu ahal izateko. Protesi erauzgarriekin zein finkoekin erabil daiteke gailua, eta protesi-aukera ugari ematen ditu.

**Quest Implants** enpresaren produktuak hortz-tratamenduen segurtasuna eta eraginkortasuna hobetzeko diseinatuta daude, eta praktika kliniko sinplifikatzeagatik eta pazienteen bizi-kalitatea hobetzeagatik nabarmentzen dira.

# QUESTEK IRTENBIDE BERRITZAILEAK SORTZEN DITU EPE LUZERA HORTZ-INPLANTOLOGIA ERRAZAGOA, SEGURUAGOA ETA ERAGINKORRAGOA LORTZEKO

KBIZ | beaz magazine 0. ZK

## MUGARRIAK ETA NAZIOARTEKO ETORKIZUNA

2017tik, Quest Implants enpresak bere irtenbide berritzaileak patentatu ditu, bai European, bai Estatu Batuetan.

Aurten, beren sistemen aukera klinikoak hedatu dituzte osagarri guztien liburutegi digitalak sortzearen bidez, bai klinikei bai laborategiei protokolo digitalak eskuratzea errazteko, eta azken bi urteotan beren sistemen erabileran optimizazioak ezarri dituzte, bereziki berehalako kargako inplantologiaren arloan.

Gainera, marketineko eta marka-irudiko estrategiak

lantzen ari dira nazioarteko hedapena sustatzeko. Frantzian izan dute arrakasta bereziki.

## EKOSISTEMAREN BALIOA

Quest taldeak aitortu du Beaz funtsezko laguntza dela Bizkaian enpresa-proiektu bat garatu nahi duen ekintzaile ororentzat, eta aukera eman die beren jarduera garatzeko eta kalitatezko enpresa-prestakuntzako programa ugarietarako sarbidea izateko (besteak beste, **Prestaekin** programa).


**BIC Bizkaia** bezalako azpiegiturek, zeinak ez diren gune fisiko hutsa bakarrik, aukera ematen

dute berrikuntzarekiko grina partekatzen duten ekintzailetza-proiektuen komunitate bat sortzeko. Proiektu horiek elkarrengandik oso hurbil hazten dira hasiera-hasieratik, eta sinergiak eta ezagutza partekatua sortzea ahalbidetzen duen esperientzia komunitatik ikasi eta aberasten dira.





Zorioneko sentitzen dira askotariko laguntza espezializatua ematen buru-belarri diharduen egitura instituzionala dutelako eta etorkizuneko enpresa-sarea garatzen ari diren startupen jarraipen hurbila egiten delako.



**Deborah Erkoreka**  
**QUEST IMPLANTS**

Bizkaiko Teknologia Parkea  
Astondoa bidea, 612 eraikina  
48160 DERIO (Bizkaia)



*Informazio gehiago  
hemen aurki dezakezu:*





# Saluta

## osasun zentro digitala

### *Osasun mentalean lan egiten Bizkaian eta Iberoamerikan*

**Saluta** 2019an sortu zen Txilen, helburu argi batekin: osasun mentalaren erronka globalari aurre egitea.

*“Munduko 1.000 milioi pertsonak baino gehiagok osasun mentaleko arazoak dituzte, eta lau pertsonatik batek bakarrik jasotzen du tratamendua. Osasun mentalik gabe, ez dago osasunik”,  
dio Mauricio Bonilla fundatzaileak.*

2024ko otsailean Bizkaian startup berri bat sortzeko erabakia hartu zuen. Erabaki hori erabakigarria izan zen Europako merkatuan sartzeko estrategia definitzen eta abian jartzen hasteko. Startuparen eskaintza espezializatua denez, Bizkaian emandako lehen urratsak Nagusi Intelligence Center gunean hasi ziren.

#### **ESKUALDE-INPAKTUA ETA ETORKIZUN GLOBALA**

Hasieran, **Saluta** telemedikuntzako plataforma bat zen, baina 2021ean aplikazio mugikor bat sortu zuten irismena handitzeko, erabiltzaileei teleorientazio psikologikoko eta psikohezkuntzako ereduak eta eguneroko bizitzarako hainbat tresna eskainiz.

Pertsonak ardatz dituen konbinazio horri esker, osasun mentalaren prebentzioa eta tratamendua landu daitezke.

*“Pandemiaren aurretik ekin genion lanari. 2019a amaitu aurretik, telemedikuntzako plataforma bat geneukan, baina pandemia betean izan genituen lehen salmentak. 2021ean konturatu ginen telemedikuntzako*



---

*plataforman tratamendua eskaintzeaz gain, osasun mentalaren prebentzioa ere eskaini behar genuela; izan ere, une horretan pentsatu genuen ez ginela munduko mediku eta psikologoengana iritsiko ondoez mentala prebenitzeko estrategiak sortzen ez bagenituen, eta, beraz, teleorientazio psikologikoa, psikohezkuntza eta eguneroko bizitzako*

---

*erronkei aurre egiteko tresnak eskaintzen dituen app bat sortu genuen. Horrela, aplikazioak eta plataformak pertsonen osasun mentala laguntzen dute, prebentziotik tratamenduraino”, azaldu digu **Salutaren** sortzaileak.*

**Salutak** nazioarteko planteamendu bat eskaintzen du, **B2C** eta **B2B** ereduak finkatu ditu eta

---

dagoeneko milaka pertsonak erabiltzen dute. Kolonbian ere hasi dira hedatzen, eta, berrikiago, Espainian. Bizkaian kokatu dira zehazki, eta adinekoen zaintzaileen osasun mentala zaintzeko proiektu berritzaile bati ekin diote, talde kaltebera baita, antsietate- eta depresio-intzidentzia handikoa.

*“Nork zaintzen du zaintzailea? Zaintzaileen*




### **SALUTA**

#### **Bic Bizkaia**

Nagusi Intelligence Center (NIC)

Sabino Arana Kalea 37

48610 URDULIZ (Bizkaia)



*Informazio gehiago  
hemen aurki dezakezu:*

**“SALUTAN GIZATERIA  
ZAINTZEN DUGU,  
OSASUN MENTALA  
EMANEZ”**



## “Nork zaintzen du zaintzailea?”

---

*osasun mentalean eragiteko estrategiak sortzea funtsezkoa da”, hausnartu du **Salutare**n sortzaileak. Bazenekien zaintzaileen % 70ek antsietatea edo depresioa dutela? Funtsezkoa da zaintzen gaituztenen edo zainduko gaituztenen osasun mentalean eragiteko estrategiak sortzea.*

Gainera, **Bizkaiko Foru Aldundiak** sustatutako

---

**Nagusi Intelligence Center**ren inkubazio-programan parte hartzeak eta **Bilbao Silver Lab** bezalako ekimenetan hautatzeak indartu egingo dute Europan duen presentzia.

**Salutare**n egungo erronkak haztea eta irtenbide berriak merkatuan finkatzea dira; gainera, 500.000 euroko inbertsioa lortu nahi du nazioartekotzea sendotzeko.

# I+G+B ZERGA-KENKARIAK



**Eskaerak aurkezteko epea:**

Eskaera egiteko epea 2025eko otsailaren 14ra arte

Zerbitzuak enpresen  
ikerketa eta garapen  
eta berrikuntza  
teknologikoko  
jarduerekin lotutako  
zerga-kualifikazio-  
txostenak eskaintzen  
ditu, Sozietateen  
gaineko Zergan  
kenkariak aplikatzeko.

## Lagunduko dizugu:



Txostenak ematea N+1  
urteko 06/30a baino lehen.



Finantzaketa bilaketan laguntza, txosten  
hau finantzaketa-kontratua formalizatzeko  
ezinbesteko baldintza delako.



“I+G+b-rako zerga kenkariak”  
gidaliburua.

## Norentzat?

Egoitza fiskala Bizkaian duten startup, ETE eta  
enpresa handiei zuzenduta dago zerbitzu hau,  
urtean zehar I+G+B proiektuak exekutatuta dituzten,  
benetako gastuekin.

[beaz@bizkaia.eus](mailto:beaz@bizkaia.eus)



	<b>A3Z Advanced</b> a3zadvanced.wordpress.com +34 943 116 332
	<b>AcceXible Impacto</b> accesible.com +34 678 580 399
	<b>AOTECH</b> aotech.es +34 621 004 487
	<b>Arquinea</b> arquinea.es +34 946 526 095
	<b>ASIMOB</b> asimob.es
	<b>Auziker</b> auziker.com +34 617 279 254
	<b>AvanzaBio</b> avanzabio.com +34 946 859 616
	<b>Batterie Ingenieure</b> batterieingenieure.de +34 944 351 819
	<b>Bidagua</b> bidagua.es +34 669 625 327
	<b>Bloodhounds Hydrogen Systems</b> bloodhoundsystems.com
	<b>Blue Connecting Emotions</b> bluece.eu
	<b>Brain and Code</b> brainandcode.tech +34 623 258 451
	<b>Bromalgae</b> bromalgae.com +34 688 773 432
	<b>Calvera Hydrogen Innovation</b> calvera.es +34 976 608 060
	<b>Carnegie Clean Energy</b> carnegiece.com +34 946 953 089
	<b>Ceata</b> ceataingenieria.com +34 946 291 183
	<b>Cibersare</b> cibersare.com +34 944 580 462
	<b>Citystock</b> citystock.es
	<b>Clean Fintech</b> cleanfintech.io +34 680 901 066
	<b>Cloudtainer</b> cloudtainer.eu
	<b>Codify</b> codify.cash +34 669 079 879
	<b>Coometas</b> coometas.com +34 613 306 221
	<b>Delicium</b> +34 665 864 695
	<b>Ditto Educación</b> ditto.kids
	<b>Drone by Drone</b> dronebydrone.com +34 637 521 158
	<b>EditorialON</b> editorialon.es +34 744 404 641
	<b>Egoki</b> egoki.eus +34 688 841 123
	<b>El Mono</b> uxuecastrillo.com +34 665 999 858
	<b>Elektrart</b> elektrart.com +34 647 391 171
	<b>Eraberrri Fisioterapia</b> eraberrifisioterapia.com +34 689 590 330
	<b>Esame Biomedical</b> esamebiomedical.com +34 630 086 300
	<b>Euskal Oxcitas Biotek</b> oxcitas.com +34 644 413 963
	<b>Exom Engineering</b> exomengineering.com +34 623 108 883
	<b>FLF - From Lab to Field</b> fromlabtofield.com +34 603 817 078

	<b>Fuelium</b> fuelium.tech +34 644 914 445
	<b>Giideba</b> giideba.com +34 613 288 465
	<b>Glycoscience</b> glycoscience.es +34 946 068 283
	<b>Grovals</b> grovals.com +34 614 235 487
	<b>Gura</b> gurathedrop.com +34 659 246 463
	<b>Hawk Biosystems</b> hawkbiosystems.com +34 946 40 55 20
	<b>Hephaie</b> hephaeet.com +34 686 532 591
	<b>House of Soiree</b> basque.soir.ee +34 645 176 709
	<b>IkerData</b> ikerdata.com +34 688 800 057
	<b>Innitius</b> innitius.com +34 944 987 052
	<b>Innomy Labs</b> innomylabs.com +34 944 049 792
	<b>Insekt Label</b> insektlabel.com
	<b>Ipsum Solutions</b> ipsumes.com +34 688 692 326
	<b>Itsas Bio Design</b> +34 646 972 368
	<b>Kuvu</b> kuvu.eu +34 944 580 877
	<b>Labsland Experimentia</b> labsland.com
	<b>Landatu Solar</b> landatusolar.com +34 623 958 316
	<b>Lipiwell</b> lipiwell.com +34 629 475 207
	<b>Lou Ingenieria</b> louingenieria.es +34 660 088 872
	<b>M55</b> +34 629 074 118
	<b>Mai CDMO</b> mai-cdm.com +34 688 609 934
	<b>Mezuticcs</b> mezuticcs.es +34 600 560 426
	<b>Mikrobiomik</b> mikrobiomik.net +34 944 540 166
	<b>Msolutions</b> +34 690 256 347
	<b>Mugikon</b> mugikon.com +34 605 761 158
	<b>Mundo Pua</b> mundopua.com +34 649 998 614
	<b>Nautilus</b> nautilusfs.com +34 944 678 052
	<b>Neucurrent</b> neucurrent.com +34 659 390 864
	<b>Nitid</b> nitid.ai +34 609 907 500
	<b>Novargi</b> novargi.com +34 688 728 562
	<b>Phebus</b> phebus.es +34 674 706 804
	<b>Plataforma 50</b> plataforma50.net +34 656 320 661
	<b>Profesiolan</b> profesiolan.com +34 688 647 670
	<b>Quest Implants</b> questimplants.com +34 946 672 165

	<b>Roiward</b> roiward.io +34 659 786 212
	<b>Roseo</b> roseo.es +34 623 366 769
	<b>Saluta Bizkaia</b> saluta.org +34 669 234 919
	<b>Samylabs</b> samylabs.com +34 687 549 979
	<b>Senstile</b> senstile.com +34 655 205 404
	<b>Serenior</b> serenior.company.site +34 678 958 708
	<b>Sisu Bienestar</b> +34 666 212 854
	<b>Smart To Walk</b> smarttowalk.com +34 747 450 919
	<b>Solargic</b> solargic.net +34 615 926 488
	<b>Sorbaitech</b> sorbaitech.com +34 688 806 412
	<b>Spouted Bed Solutions</b> sbsprocess.com +34 673 851 511
	<b>SyngoI Technologias</b> syngoI.com +34 946 096 309
	<b>Tawity</b> tawity.com +34 688 869 047
	<b>TAD</b> theartofdiscoverysl.com +34 946 941 421
	<b>Trodexa</b> trodexa.com +34 616 869 760
	<b>Tubacex Innovación</b> tubacex.com +34 943 719 300
	<b>Tubacex Upstream Technologies</b> tubacex.com +34 943 719 301
	<b>Universal Omics</b> universal-omics.com +34 667 174 329
	<b>Universo Marziano</b> marzianos.com +34 695 046 292
	<b>Ventijet</b> +34 667 008 105
	<b>Vip Boomers</b> vipboomers.com +34 674 155 370
	<b>Vitrocaulis</b> vitrocaulis.es
	<b>Volta Control</b> controledificacion.com +34 659 895 727
	<b>Vrainhax</b> vrainhax.es +34 657 735 637
	<b>Weco Art</b> wecoart.com +34 623 369 734
	<b>Welltech</b> welltechelectronics.com +34 944 353 129
	<b>Yuit</b> yuit.eu +34 747 476 394
	<b>Yoid</b> yoid.es +34 647 365 147
	<b>Zenialabs</b> zenialabs.com
	<b>Carbon Zero</b> zerocs.eu
	<b>Zinnia Ediciones</b> zinniaediciones.com +34 644 524 673
	<b>Zirkular Basq</b> basqcompany.com +34 644 357 690